



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK AURRERAPAUISOAK ESKATU DITUE GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO ETXEKO ZAINZA PARTEKATUETAN

- **EH Bildu, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek akordio bat lortu dabe gaurko osoko batzarrean, transakzinozko zuzenketa-eske baten bidez, Aldundiari Batzar Nagusietan etxean zaintza “formalen eta informalen” egoerearen azterketea aurkeztu daiala eskatzeko.**
- **Bizkaiko Parlamentuko osoko batzarrak baztertu egin dau, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Berezia-PP Bizkaia taldeen botoakaz, lurraldean turismo-zergea ezarteko Elkarrekin Bizkaiak egin dauen proposamena**
- **Bizkaiko Parlamentuak energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren ganeko zergaren aldi baterako etendura luzatzea onartu dau.**

(Gernikan, 2022ko urtarrilaren 19an). Aldundiari eusten deusien talde biek (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) eta EH Bilduk akordioa lortu dabe gaur Bizkaiko Batzar Nagusiek Gernikan egindako osoko batzarrean, Gizarte Ekintzako foru sailak gizonen eta emakumeen artean etxean zaintza partekatuak lortzeko neurriak ezarten jarraitu daian.

Onartutako transakzinozko zuzenketa-eskeak EH Bilduk aurkeztutako arauz besteko proposamena ordeztu dau, emakumeen ikutua eta “musturreko lan-prekarietadea” daukien zainketa joerea aldatzeko. Batzar Nagusiek, beraz, Enplegu, Gizarteratze eta Larrialdi Sailagaz batera etxean egiten ari dan zainketa formalen eta informalen egoeraren inguruko azterlanaren emaitzea aztertu daiala eskatu deusie Sergio Murillok zuzentzen dauen sailari, neurri horreetan aurrera egiteko, eta ekitaldiko hirugarren hiru hilekoan Batzar Nagusietan aurkezteko.

Talde Berezia-PP Bizkaiak be babestu dauen proposamenean, “etxeTIC proiektuen ezarpenaren ebaluazioa genero-ikuspegitik be egiteko” eskatzen da, “proiektuaren hedapenak aurrera egin ahala”, eta urte honetan zehar Aldundiak “etxeTIC modeloan oinarritutako Etxaniz zentroaren ezarpenaren ebaluazioa” egiteko eskatzen da, 2023ko lehen hiru hilekoan Bizkaiko Batzar Nagusietan aurkezteko. Elkarrekin Bizkaia akordiotik kanpo geratu da bere abstentzinoagaz, ez dauelako babestu gura izan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

garrantzitsuenean “arazo horren aurrean erantzuteko daukagun moduan”, sakontzen ez dauen “gitxienekoen” testua.

TURISMO ZERGEA

Beste alde batetik, Bizkaiko Batzar Nagusien osoko batzarrak baztertu egin dau lurraldean egotaldi turistikoetarako zerga bat ezartea. Proposamena aurkeztu dauen Elkarrekin Bizkaia taldearen kalkuluek erakusten dabenez, urtean 8 milioi euro inguru batzea ekarri daiteke, bisitarien joan-etorrian eragin barik, Estaduko beste leku batzuetan edo Europako urietan ezarri izanak erakusten dauen moduan.

Xabier Benito alderdi moreko batzarkideak azaldu dauenez –bere berbetan, gai hau Bizkaiko Batzar Nagusietan eztabaidetan dan “lehenengo aldia”–, zerga barriaren helburua ez litzateke dirua batzea bakarrik izango, turistek euren bisitek bizkaitarrek ordaintzen dituen zerbitzuetan sortzen dabeneko kostuan laguntzeko be balioko leuke. Zehaztapenetan sartu barik, Elkarrekin Bizkaia “hiru printzipio orokor” jarraitu gura ebazan: zerga progresiboa, inpaktua autortzea, gaur non igaroten dan alde batera itxita, eta turistari informazioa emotea.

Bizkaia “1.600.000 bidaiari-sarrera” baino gehiago izan ebazan 2019an; batez beste, “1,98 gau” igaro ebazan, eta guztira “3 milioi gau baino gehiago”. Datu horreez, alderdi moreak “gaueko 2,5 euroko batez besteko zerga” planteatu dau, eta horrek diru kopuru hori –8 milioi–, ekar heinkean. Kopuru hori, EH Bilduren berbetan, ingurumen arloko hobekuntzak finantzatzera bideratu beharko litzateke. Holan azaldu dau funts horreen erabilera mugatu gura ez izateagaitik Elkarrekin Bizkaia onartu ez dauen zuzenketa-eskearen bidez.

Ekimena bertan behera itxi dabe Aldundian dagozan alderdiek –Taldea Berezia-PP Bizkaia be bat egin dau–. Batzar Nagusietako hiru taldeek kritikatu egin dabe gai hori justu momentu honetan, pandemiaren ondorioz turismoaren sektorea “krisi ekonomiko larria” jasaten ari danean, planteatea. Ganera, daborduko Eusko Legebiltzarrean eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan be egin dan “denporaz kanpoko” eztabaidea da. Erakunde horreetan, orain dala denpora gitxi ezezkoa emon jako antzeko ekimenari. Aitatu behar da, baita be udalek eurek ezetsi dabela idea Eudel barruan. Foru Gobernuari eusten deusien alderdi biek eskatu dabenez, zerga baten ezarpena eztabaidatzekotan, Zerga Koordinazinarako Organuan egin beharko litzateke.

ZERGA ARLOKO ALDAKETAK



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Beste alde batetik, osoko batzarrak argi berdea emon deutso, iruzur fiskala prebeniduteko eta haren kontra burruka egiteko neurriak, Energia Elektriakoaren Ekoizpenaren Balioaren ganeko zergan preminazko neurriak eta Balio Erantsiaren ganeko zergan beste neurri batzuk ezarten dituan abenduaren 14ko 8/2021 Foru Dekretu Arauemoileari. Horreek guztiek Estaduan egindako lege-aldaketetara egokitzen dabe foru-araudia, besteak beste, zerga-iruzurraren kontrako prebentzino- eta burruka-neurriei buruzko garagarrilaren 9ko 11/2021 Legera. Lege horrek, zergak saihesteko jardunbideen kontrako arauak ezarten ebazan Europako zuzentaraua beteten eban. Aldaketen artean, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren ganeko zergaren etendura 2021eko abenduaren 31ra arte aldi baterako luzatzea nabarmentzen da. Foru dekretu arauemoilea aldeko 38 botogaz, kontrako boto barik, eta 12 abstentzinogaz (EH Bildu eta Talde Berezia-PP Bizkaia) onartu da.

Osoko batzarrak gaur onartu ez dauena, Jarduera Ekonomikoen ganeko Zerga aldatzea kontuan hartzea da. Batzar Nagusietako Elkarrekin Bizkaia taldeak udal izaerea daukan eta JEZ izenez ezagutzen dan zerga horren inguruko bagilaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren erreforma defendidu dau Parlamentuan, EH Bilduren babesagaz. Arau-proposamenak kontrako 35 boto (EAJ-PNV, PSE-EE eta PP) eta aldeko 16 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) jaso ditu. Zergaren asmoa Euskal Autonomia Erkidegoko ganerako lurraldeakaz harmonizetako bidea edegitea zan, ordaintzeko salbuespenaren mugea milioi bat eurora jeitsiz, Gipuzkoan eta Araban gertatzen dan moduan, Bizkaian salbuespen hori 2 milioikoa dalako.

Egoera hori dala eta, enpresek baldintza fiskal hobeak ditue Bizkaian, eta Bizkaiko udalek, barriz, bidebakokeria jasaten dabe Euskadiko ganerako udalerririkaz alderatuta, finantzatzeko gaitasuna murriztu egiten jakelako, Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaiaiko bozeroaleak azaldu dauenez. Talde moreak 2022. eta 2023. urteetarako hobari bereziak sartzea proponidu dau.

Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak aldaketa horren aurreko ezezko eretxia azaldu dau; izan be, talde horrek autonomoei eta enpresa txiki eta ertainei eragingo leuskien “zerga igoera ezkutua” ikusi dau. Aldundia babesten daben taldeek (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak), JEZ aldatzeko proposamenari uko egin arren, ez deutsie aterik itxi “berandu baino lehen” barrikusteari; izan be, “txapa eta pintura eskua behar dauela ikusten hasi gara”, Jose Alberto Álvarez Castejon sozialistak adierazo dauenez. Jeltzaleek uko egin deutsie aldaketa “parzialak” egiteari eta zergen koordinazinarako organuaren barruan dagozan hiru eskumen-mailen parte-hartzeagaz (Eusko Jaurlaritz, aldundiak eta udalak), zergea “alderdi orokorragoetan eta ez hain zehatzetan” aldatzeko aukera aztertzeari.

EUKALIPTOAREN MORATORIA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Osoko batzarrak ez dau onartu Iratxe Arriola batzarkidearen esanetan Aldundiak Bizkaiko basoen egoerea hobetzeko hartutako konpromisoak “gogora ekartea” helburu eban EH Bilduren mozinoa; besteak beste, eukaliptoaren moratoria, basoak erostea edo egungo araudia aldatzea.

Koalizino abertzalearen ekimenak Aldundiaren jaubetzako lurretan pinu eta eukalipto landaketak baso autoktonora eraldatzeko apustua egitea; udalei euren mendietan basoak antolatzeke planak egiteko laguntzak emotea; norbanakoentzako diru-laguntzen lerro barria zabaltzea, naturatik gertu dagozan baso produktiboen % 100eko finantzaketea gauzatu daiten; baso autoktonoetarako igarotea plan batera eroatea; eta eukaliptoaren moratoria indarrean sartzea aurreratzea planteetan eban.

EH Bilduk proponiduten dauena “daborduko egiten ari da”, edo parlamentuan izapidetzen ari dan mendien hurrengo foru arauan sartuta egongo da, sozialistek eta jeltzaleek gogorarazo dabenez. Jesus Lekerikabeaskoa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak adierazo dauenez, proposamena “ulermenerako jarrera faltaren ondorioa” da. “Diskurtsoan geratu gura dabe”, eta, horregaitik planteau dabe mozino hau, Amaia Antxustegi Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala zaintzeko diputatuak kontroleko azkenengo osoko batzarrean azaldu ebazan neurriak “ulertzeko gaitasun faltea” erakutsiz. Aldundiak lurra erosten ditu, udalek espezie autoktonoak landatzeko eta mantentzeko laguntzak ditue, eta norbanakoek hektareako 3.100 eurorainoko diru-laguntzak ditue. Legealdi honetan, Aldundiaren asmoa “100 hektarea eukalipto baino gehiago kentzea” da.

ARTEAKO ETA UGAO-MIRABALLESEKO BANDERA BARRIAK

Beste alde batetik, osoko batzarrak oneretxia emon deutso Arteako eta Ugao-Miraballeseko banderak sortzeari, EH Bilduren abstentzino bakarragaz, udalerrri bietan adostasun zabalagoa lortu ez dalako, eta Arrankundiaga udalerrriaren izena Arrankundiaga-Zollora aldatzea, kasu horretan Batzar Nagusietako talde guztien onespengaz.

ESTHER MARTINEZEK AMAYA FERNANDEZ ORDEZTUKO DAU

Gaurko saioa Esther Martínez Fernández Batzar Nagusietako Talde Berezia-PP Bizkaia taldeko ordezkari barriaren jarlekua hartzeagaz hasi da. Bederatzigarren legegintzaldian, 2011 eta 2014 urteen artean, popularren bozeroale izan zana Bizkaiko Batzar Nagusietara itzuli da, agintaldi honetan talde horretako bozeroale izan dan eta abenduan jarlekua itxi eban Amaya Fernandez ordeztuko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA PIDE AVANCES EN LOS CUIDADOS COMPARTIDOS EN EL HOGAR ENTRE HOMBRES Y MUJERES

- **EH Bildu, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos alcanzan un acuerdo en el pleno de hoy, a través de una enmienda transaccional, para pedir a la Diputación que presente en Juntas un análisis de la situación de los cuidados “formales e informales” en el hogar.**
- **El pleno de la Cámara vizcaína ha rechazado, con los votos de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y grupo Mixto-PP Bizkaia, una propuesta de Elkarrekin Bizkaia para implantar un impuesto turístico en el territorio.**
- **El Parlamento de Bizkaia aprueba la prórroga de la suspensión temporal del Impuesto sobre el valor de la producción de energía eléctrica.**

(Gernika, a 19 de enero de 2022). Los dos grupos que sustentan al Ejecutivo foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) y EH Bildu han alcanzado hoy un acuerdo en el pleno de Juntas Generales de Bizkaia celebrado en Gernika, para que el departamento foral de Acción Social siga avanzando en la implantación de medidas para conseguir cuidados compartidos en el hogar entre hombres y mujeres.

La enmienda transaccional aprobada sustituye a una proposición no de norma que había presentado EH Bildu para cambiar la tendencia de unos cuidados que tienen un acento femenino y que pasan por una “precariedad laboral extrema”. Las Juntas, por tanto, instan al área que dirige Sergio Murillo a que “analice el resultado del estudio sobre la situación de los cuidados formales e informales en el hogar que está desarrollando junto con el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad”, con el objeto de avanzar en estas medidas, y lo presente en las Juntas Generales en el tercer trimestre del ejercicio.

En la propuesta, apoyada también por el grupo Mixto-PP Bizkaia, se insta a que “se haga una evaluación de la implantación de los proyectos etxeTIC también desde la perspectiva de género, según avance su despliegue”, y a que a lo largo de este año la Diputación “haga una evaluación de la implantación del centro Etxaniz, basado en el modelo etxeTIC”, y la presente en la Cámara vizcaína en el primer trimestre de 2023. Elkarrekin Bizkaia se ha quedado fuera del acuerdo con su abstención, porque no ha



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

querido apoyar un texto “de mínimos” que no va a “lo importante, que es cómo respondemos” a esta problemática.

IMPUESTO TURÍSTICO

Por otro lado, el pleno de las Juntas Generales de Bizkaia ha rechazado la implantación de un impuesto a las estancias turísticas en el territorio, que según los cálculos del grupo proponente, Elkarrekin Bizkaia, podría reportar una recaudación anual aproximada de “8 millones de euros”, sin que se viese afectado el flujo de visitantes, como “lo demuestra” su implantación en otros lugares del Estado o ciudades europeas.

El juntero de la formación morada Xabier Benito ha explicado -“en la primera vez” que se debate este asunto en la Cámara vizcaína según él- que el objetivo del nuevo impuesto no sería solamente recaudatorio, sino que serviría para que los turistas contribuyeran al coste extra que sus visitas generan en servicios que pagan vizcaínos y vizcaínas, y de los que se benefician durante su estancia. Sin entrar en concreciones, Elkarrekin Bizkaia planteaba seguir “tres principios generales”: un impuesto progresivo, un reconocimiento del impacto con independencia de dónde se pernocte y una información al turista.

Bizkaia recibió en 2019 “más de 1.600.000” entradas de viajeros, con una estancia media de “1,98 noches” y un número total de pernoctaciones de “más de 3 millones”. Con estos datos, la formación morada ha planteado “un impuesto medio de 2,5 euros” por noche que podría reportar esa suma de dinero-- 8 millones-; un importe que debiera ser dirigido a financiar, según EH Bildu, mejoras medioambientales. Así lo ha explicado a través de enmienda que no ha sido aceptada por Elkarrekin Bizkaia por no querer delimitar el destino de estos fondos.

La iniciativa ha sido tumbada por los partidos que lideran el ejecutivo foral –con el añadido del grupo Mixto-PP Bizkaia–. Los tres grupos junteros han criticado que se plantee esta cuestión justo en este preciso momento cuando el sector turístico atraviesa “una grave crisis económica” por motivo de la pandemia. Además, es un debate “extemporáneo” que ya se ha llevado a cabo en el Parlamento vasco y en las propias Juntas Generales de Gipuzkoa, donde recientemente han rechazado una iniciativa similar. Por no mencionar que los propios ayuntamientos han desestimado la idea en el seno de Eudel. Las dos formaciones que apoyan al Gobierno foral han pedido que, de debatirse la implantación de un impuesto, se haga en el Órgano de Coordinación Tributaria.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

CAMBIOS TRIBUTARIOS

Por otro lado, el pleno ha dado luz verde al Decreto Foral Normativo 8/2021, de 14 de diciembre, por el que se adoptan medidas de prevención y lucha contra el fraude fiscal, medidas urgentes en el Impuesto sobre el Valor de la Producción de Energía Eléctrica y otras medidas en el Impuesto sobre el Valor Añadido. Todas ellas vienen a adaptar la normativa foral a cambios legislativos hechos en el Estado, entre ellas la Ley 11/2021, de 9 de julio, de medidas de prevención y lucha contra el fraude fiscal, que venía a cumplir una directiva europea por la que se establecían normas contra las prácticas de elusión fiscal. Entre los cambios destaca, además, la prórroga temporal de la suspensión del Impuesto sobre el valor de la producción de energía eléctrica hasta el 31 de diciembre de 2021. El decreto foral normativo ha sido aprobado por 38 votos a favor, ningún voto en contra, y 12 abstenciones (EH Bildu y grupo Mixto-PP Bizkaia).

Lo que no ha aceptado hoy el pleno es la toma en consideración para modificar el Impuesto sobre Actividades Económicas. El grupo juntero de Elkarrekin Bizkaia ha defendido en la Cámara, con el apoyo de EH Bildu, la reforma de la Norma Foral 6/1989, de 30 de junio, de este impuesto de carácter municipal conocido como IAE. La proposición de norma, rechazada por 35 votos en contra (PNV, PSE-EE y PP) y 16 a favor (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia), tenía intención de abrir una vía para armonizar este impuesto con el resto de territorios de la Comunidad Autónoma, bajando el tope de exención de pagar hasta el millón de euros como ocurre en Gipuzkoa y Araba, cuando en Bizkaia esta exención se sitúa en los 2 millones.

Esta situación convierte a Bizkaia en un territorio donde las empresas tienen unas condiciones fiscales “más ventajosas” y los ayuntamientos vizcaínos sufren “un agravio” respecto a los del resto de municipios del País Vasco al ver reducida su capacidad de financiación, ha explicado Eneritz de Madariaga, portavoz de Elkarrekin Bizkaia. El grupo morado planteaba la inclusión de bonificaciones especiales para los años 2022 y 2023.

En la bancada del no a este cambio se ha situado el grupo Mixto-PP Bizkaia, que ha visto en ella una “subida encubierta de impuestos” que afectaría a personas autónomas y pymes. Los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos), pese a rechazar la propuesta de modificación del IAE, no han cerrado la puerta a hacer “más pronto que tarde” una revisión de la misma, ya que “va necesitando una mano de chapa y pintura”, según ha manifestado el socialista José Alberto Álvarez Castejón. Los jeltzales se han negado a introducir cambios “parciales” y analizar en el ámbito del órgano de coordinación tributaria, con la participación de los tres niveles competenciales (Gobierno vasco, diputaciones y ayuntamientos), la posible modificación de este impuesto en aspectos “más generales y no tan concretos”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

MORATORIA DEL EUCALIPTO

El pleno ha rechazado también una moción de EH Bildu que tenía como intención, según su apoderada Iratxe Arriola, “recordar” los compromisos adquiridos por la Diputación en la mejora de la situación forestal de Bizkaia, entre las que se encontraba la moratoria del eucalipto, la adquisición de bosques o la modificación de la normativa actual.

La iniciativa de la coalición abertzale planteaba que en terrenos propiedad de la Diputación, se apostara por transformar a bosque autóctono las plantaciones de pino y eucalipto, así como conceder ayudas a los Ayuntamientos para la realización de planes de ordenación forestal en sus montes, abrir una nueva línea de subvenciones para particulares para que se haga realidad la financiación al 100 % de los bosques productivos cercanos a la naturaleza, trasladar a un plan el tránsito a bosques autóctonos; y adelantar la entrada en vigor de la moratoria del eucalipto.

Lo que plantea EH Bildu “ya se está haciendo” o estará incluido en la próxima norma foral de montes que “está en trámite parlamentario”, han recordado tanto socialistas como jeltzales. La propuesta obedece a una “falta de disposición al entendimiento”, ha dicho el portavoz de Nacionalistas Vascos Jesús Lekerikabeaskoa. “Se quieren quedar en el discurso” y es, por ello, que plantean esta moción sin “capacidad de comprensión” de las medidas que ya expuso la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Amaia Antxustegi, en el último pleno de control. La Diputación compra terrenos, los ayuntamientos tienen ayudas para la plantación y el mantenimiento de especies autóctonas, y los particulares disponen de subvenciones de hasta 3.100 euros por hectárea. En esta legislatura la intención del Gobierno foral es eliminar “más de 100 hectáreas de eucalipto.”

NUEVAS BANDERAS DE ARTEA Y UGAO-MIRABALLES

Por otro lado, el pleno ha dado el visto bueno a la creación de las banderas de Artea y Ugao-Miraballes, con la única abstención de EH Bildu por no llegarse a un consenso más amplio en ambas localidades, y la modificación del nombre del municipio de Arrankundiaga por Arrankundiaga-Zollo, en este caso con la aprobación de todos los grupos junteros.

ESTHER MARTÍNEZ SUSTITUYE A AMAYA FERNÁNDEZ



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La sesión de hoy se ha iniciado con la toma de asiento de la nueva representante del grupo juntero Mixto-PP Bizkaia Esther Martínez Fernández. La que fuera portavoz de los populares en la novena legislatura, entre los años 2011 y 2014, vuelve a la Cámara vizcaína para sustituir a Amaya Fernández, que ha sido portavoz de este grupo durante el presente mandato y que dejó su escaño en diciembre.